

SAKANAKO EUSKALGINTZARI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK: OINARRIAK

1. Oinarrien xedea eta zertarakoa. Oinarri hauen xedea da Sakanako euskalgintzari eta euskara sustatzeko jardueri diruz laguntzeko modua arautzea.

2. Dirulaguntzaren gaiak eta kontzeptuak. Diruz lagunduko dira euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko helburua duten egitasmoak zein euskararekiko jarrera hobetzeko dutenak. Zehazkiago, honako hauek dira diruz lagunduko diren egitasmoak:

- a) Ezagutzatik erabilerarako jauzia egitea helburu duten egitasmoak.
- b) Euskara ez dakiten euskal herritarrek euskarara hurbil daitezen helburua duten egitasmoak.
- c) Euskararen ondarea jaso, gorde edota hedatzea helburu duten egitasmoak.
- d) Euskararen hainbat alderdi aztertzea helburu duten jardunaldiak.
- e) Euskalgintzan ibilbide oparoa izateagatik nabarmendutako pertsonak edo elkarteak omentzeko egitasmoak.
- f) Euskararen familia bidezko transmisioa sendotzea helburu duten egitasmoak.
- g) Euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea helburu duten egitasmoak.
- h) Euskarazko sormen kulturala bultzatzea helburu duten egitasmoak (hitzaldiak, erakusketak, kontzertuak, antzerki-emanaldiak eta lantegiak).
- i) Etorkinen artean euskararen erabilera sustatzea helburu duten egitasmoak.
- j) Euskarazko jostailu, joko eta denbora-pasak.

Oro har ez dira diruz lagunduko euskararen erabilera sustatzea helburu espezifiko eta nabarmena ez duten egitasmoak, ez eta Sakanako Mankomunitatearen beste edozein esparrutan dirulaguntza jaso dezaketen horiek, ez eta, oro har, Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuaren jarduera esparruaren barruan ez daudenak ere.

Halaber, ez dute dirulaguntzarik jasoko haur eta gazteendako antolatzen diren aisialdiko jarduerak, besteak beste, udalekuek eta ludotekek.

Bestalde, entitatearen ohiko funtzionamenduan eta Sakanan egindako jardueretan sortutako gastuak diruz lagunduko dira, zehazkiago:

- a) Material suntsikorra.
- b) Webgunea mantentzea.
- c) SGAE/EKKI.
- d) Inbertsioak.
- e) Bazkidetzak.
- f) Prestakuntza-ikastaroak.

Deialdi honetatik kanpo geldituko dira ordezkaritza eta protokolo gastuak (otorduak, opariak...), baita kideen bidaia-gastuak ere.

Funtzionamendu gastuetarako diruz lagundutako jardueren aurrekontu osoaren % 25 jaso liteke gehienez ere.

Deialdi honek 2024ko azaroaren 1etik 2025ko urriaren 31ra bitartean burutuko diren ekintzak hartuko ditu kontuan.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa. Xede honetarako, guztira, 5.000,00 euro erabiliko dira, Euskara Zerbitzuko 2025eko ekitaldiko aurrekontuetako 4 3350 4820010 4 3350 4820009 (Euskara taldeendako dirulaguntzak) diru-sailean jasotako kredituaren kontura. Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du eskumena esleituta duen organoak, aldaketaren zenbatekoaren arabera. Dena den, horrek ez du, ezinbestean, beste deialdi bat egitea ekarriko.

Dirulaguntzek deialdiari esleitu zaion diru-kopurua gainditzen badute, aurrekontuetan gehienez ere aurreikusi den diru-esleipena behar den epean eta behar den moduan aurkezten diren eskaeren artean hainbanatuko da, deialdiko baldintzak betetzen dituztenen artean betiere.

4. Deialdiaren publizitatea. Deialdi hau aditzera emateko, prentsa-oharra helaraziko zaie hedabideei. Horrez gain, deialdiaren testu osoa Sakanako Mankomunitatearen webgunean eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) jarriko da, eta laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

5. Eskabideak aurkezteko epea. Eskabideak egiteko epea 2025eko martxoaren 31ra artekoa izango da.

6. Aurkeztu beharreko dokumentazioa. Honako dokumentazioa aurkeztu beharko da Sakanako Mankomunitateko bulegoetako erregistro orokorrean edo erregistro elektronikoaren bidez:

a) Dirulaguntza-eskabidea.

b) IFKren fotokopia.

c) Egin nahi den jardueraren plangintza zehaztua.

d) Jarduerei lotutako diru-sarreraren eta gastuen gaineko aurrekontua.

e) Aitorpena, objektu honetarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebatzteke edo ebatzita dauden; azken kasu horretan, kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia erantsiko da.

Hona zer helbidetan aurkeztu behar den dokumentazioa:

Sakanako Mankomunitatea
Uriz 32
31830 Lakuntza

Edo:

Egoitza elektronikoan

Ez dira posta elektronikoko bidez jasotako eskabideak aintzat hartuko.

Deialdiaren inguruko zalantza edo esatekoren bat izanez gero, Sakanako Mankomunitateko bulegoetara jo, euskara1@sakana-mank.eus helbidera idatzi edo 948 464840 telefonora deitu.

7. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak. Honako erakunde hauek eskatzen ahal dituzte dirulaguntzak:

- a) Sakanako euskara taldeek.
- b) Euskararen normalizazioa helburu duten erakundeek, nahiz eta Sakanakoak izan ez, besteak beste Sakanan jarduten badute.
- c) Jarduera bakoitzak gehienez ere 1.500,00 euroko aurrekontua izanen du.
- d) Eskatzaile bakoitzak gehienez ere 3 jardueratarako dirua eska dezake.
- e) Ezinbestekoa da eskatzaileek Sakanako Mankomunitatearekiko zerga-betebeharrak ordainduta izatea (Mankomunitateak ofizioz egiaztatuko du inguruabar hori, eta behar den eginbidearen bitartez jasoko du).

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira honakoa hauek:

- a) Ikastetxe publiko zein hitzartuak.
- b) Guraso elkarteak zein kooperatibak.

8. Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea. Aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun emango zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu ez bada, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da. Sakanako Mankomunitateko lehendakariak horretarako ebazpena egingo du.

9. Ebazpena. Deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko ebazpena hamabost eguneko epean emango du Sakanako Mankomunitateko lehendakariak, Euskara Batzordearen irizpena aintzat hartuz.

Ebazpen hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie. Esleipen-ebazpenean dirulaguntza nori eman zaion zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla. Era berean, ebazpenak adierazi beharko ditu haren aurka jotzeko zer errekurtso-bide dauden, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epe dagoen hori egiteko, beste edozein errekurtso-bide erabiltzeko eskubidea baztertu gabe.

Ebazpena eman eta ordaintzeko epea lau hilabetekoa izango da, gehienez ere. Dirulaguntza eman eta ordainketa agintzeko ebazpena emateko epea 2025eko abenduaren 31n amaituko da. Behin epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaro eta gero, eskaera ezetsitzat jotzen ahalko da.

10. Balioesteko irizpideak. Euskara Batzordeak eskabideak balioztatuko ditu, ohiko saioan, eta honako alderdiak izanen ditu kontuan:

- a) Jarduerak hizkuntza-normalizazioan duen eragina eta efektu biderkatzailea: 35 puntu.

- b) Jardueraren kalitatea, originaltasuna eta berrikuntza-maila: 25 puntu.
- c) Autofinantzaketa-maila: 10 puntu.
- d) Entitate eskatzailearen jarraitutasuna eta egonkortasuna: 10 puntu.
- e) Beste entitate batzuekin elkarlanean jardutea: 20 puntu.

11. Dirulaguntzaren ordainketa. Emandako diru-kopurua bi zatitan ordainduko da: % 50 dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten den unean, eskatzaileak horretarako zehazten duen kontu korrontearen zenbakira eginiko banku-transferentziaren bidez. Gainerako % 50, berriz, eginiko jardueren memoria eta kontuak balioetsitakoan. Memoria eta kontuak aurkezteko epea 2025eko urriaren 31n bukatuko da. Zehazkiago, honako hauek aurkeztu behar dira:

- a) Jardueraren memoria.
- b) Jarduera iragartzeko kartela.
- c) Balantze ekonomikoa, gastuak eta sarrerak zehazturik.
- d) Gastuen jatorrizko agiriak edo kopiak. Gastuen justifikazio gisa ez dira onartuko honako datu hauek argi identifikatuta ez dituzten fakturak/ordainagiriak: igorlea, bere izena edo sozietate-izena eta NAN edo IFZ adierazita; hartzailea, bere izena edo sozietate-izena eta NAN edo IFZ adierazita; gastuaren xedea; data eta faktura/ordainagiri zenbakia.
- e) Banku-egiaztagiriak. Gastuei dagozkien fakturez/ordainagiriez gain, horiei buruzko banku-egiaztagiriak edo laburpenak aurkeztu beharko dira, aurkeztutako kopuruekin bat etorritik.

Onuradunen bati esleitutako laguntzaren zenbatekoa murrizten bada dokumentazio osoa ez aurkezteagatik, ez justifikatzeagatik edo epeak edo deialdiko oinarrietakoren bat ez betetzeagatik, soberakina proportzionalki banatzen ahalko da gainerako onuradunen artean.

12. Bateragarritasuna. Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk xede berberaz emandakoekin, gehiegizko finantzaketarik gertatzen ez bada betiere.

13. Dirulaguntzen itzulketak. Dirulaguntza zati bat edo osoa itzuli beharko da ondotik azaltzen direnak gertatzen direnean:

- a) Dirulaguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe.
- b) Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c) Egitasmoa aurkezturik eta dirulaguntza jasorik, egitasmoaren jarduerak gauzatu gabe uztea.
- d) Objektu bera duten eta bateraezinak diren dirulaguntzak aldi berean jasotzea.
- e) Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

14. Arau-hauste eta zehapenak. Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Arautegi Orokorrak aginduko dute.

15. Datuen babesa. Eskatzaileen datuak Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean ezarritakoaren arabera tratatuko dira. Eskatzaileek

ematen dituzten datuak Sakanako Mankomunitateak kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategietan sartuko dira. Betiere helburua izango da dirulaguntzen deialdi hau eta horrekin zerikusia duen beste edozein administrazio-espediente kudeatzea. Fitxategi horren arduraduna Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzua izango da, eta sartu, zuzendu, ezereztu eta aurka egiteko eskubideak Sakanako Mankomunitatearen jendearendako harrera bulegoan (Lakuntzan, Uriz 32) egikaritu ahal izango dira.

16. Ordezko arauak. Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako, Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

17. Errekurtsoak. Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haien betearazteko hartzen diren ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkezte ahalikoa da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, hel egiten den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, hel egiten den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Hel egiten den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

SAKANAKO EUSKALGINTZARI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK: ESKABIDEA

Erakunde eskatzailea	
Izena	IFK
Helbidea	
Herria	PK
①	E-posta
Kontu korrontearen zenbakia	
Arduraduna	
Izen-deiturak	
Jardueraren ezaugarriak	
Jardueraren izenburua Jarduera noiz Jarduera non Jarduera nori zuzentzen zaio Jardueraren xedea Jardueraren programa zehatza (edukia, azpiegiturak eta abar)	
Aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuak (azalpena eta kopuruak)	
Sarrerak Proiektuaren berezko diru-sarrerak Udalaren ekarpena Erakunde pribatuen dirulaguntza Sakanako Mankomunitateari eskatzen zaiona Guztira, diru-sarrerak Gastuak Guztira, gastuak	
Lekua eta data Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua	

Bildutako datu pertsonalak dirulaguntzen fitxategian gordeko dira. Horren helburua da Euskara Zerbitzuak ematen dituen dirulaguntzen eskaerak biltzea, erregistratzea eta kudeatzea. Dirulaguntzei buruzko legea da datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa. Sakanako Mankomunitatea da datu pertsonalen hartzailea. Datu pertsonalak dirulaguntzei eta administrazio-prozedurari buruzko araudian ezarritakoari jarraikiz gordeko dira. Interesdunak berariazko baimena ematen dio Sakanako Mankomunitateari datuak tratatzeko. Aditza ematen dizugu eskubidea duzula edozein mementotan zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua murrizteko edota haren kontra egiteko. Horretarako, jakinarazpen-idatzia bidali beharko duzu Sakanako Mankomunitatera, eta zure nortasuna egiaztatu beharko duzu zuzenbideak onartutako edozein bide erabilita. Halaber, aditza ematen dizugu egokitzat joz gero erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzula kontrol-agintaritzaren batean, hain zuzen ere, Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean.

SAKANAKO EUSKALGINTZARI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK: ZINPEKO AITORPENA

Eskatzaileak hau aitortzen du:

☐ Entitatea ez dagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.

☐ Laguntza eskabide honetaz landa ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana.

☐ Dirulaguntza eskatu diela beheko erakunde hauei:

ERAKUNDEA	ZENBATEKOA	EGOERA (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

☐ Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi dirulaguntza eskabiderik eginez gero, Sakanako Mankomunitateari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)